

ESAERA ZAARRAK

LEKEITIO



AGUSTIN ARRIEN

ESAERA ZAHARRAK

- -Sanjoanetan kuku, Sanpedrotan mutu
- Txapel bategaz buru ezin estali
- Hor konpon Mari-Anton
- Gogizko tokian aldaparik ez
- usteak erdia ustel
- egia, sudurraren ondoan begia
- bakoitzari berea, hori da legea.
- dagonean "bon-bon", ez dagoenean egon.
- bataren gaitza, bestearen ona
- eroriz-eroriz ikasten da oinez.
- pozetan ibili eta hutsean itzuli.
- mihi luzeak eskuak labur.
- emakumeen indarra, negarra.
- San Lorentzok esku batean ura eta bestean sua.
- Diruak aldapak zelaitzen dauz.
- kupel txarretik ardo on gutxi.
- Otsoa non aipa, han gerta.
- oker batek gauza oker franko.
- ez dago arrosarik arantzarik gabe.
- Abadean lapikoa, txikia baina gozoa.
- Gure pozak putzura, amets zoroen mundura.
- Arrain handiak txikiak jaten dauz.
- asko balio dau indarrak gehiago buru azkarrak
- askoren mina tontoen atsegina.
- nahi bada jan egin behar da lan.
- isilik dagoanak ez dino gezurrik
- hartzeko pronto emoteko tonto
- hiru ziran hiru Elenaren alabak eta hirurek kankalak.
- hotzai fresko eta euriari sirimiri.
- horreri bere etorko jako bueltea.
- txarrari barre, lotuta dagoen astueri arre.
- atea zabalduten badozu mamoa sartuko da.
- abenduko eguna argitu orduko iluna.
- kanpoan uso etxean otso.
- A Zer pareka karakola eta barea
- nerea nere eta zurue gure.
- gaur hitza emon bihar haizeak eroan
- Andres, lahu kopa eta lahu tremes.

- -balizko erroteak irinik ez
- gezurrak goseak hil.
- nagusi askoren astoa hanka motza dauka.
- bost xentimoko pupua eta hamarrekø trapua
- ogi gogorrari hanka ~~motzaxdauka~~ hagin zorrotza.
- beteen etxean errez hazten dira haurrak,
- umearen zentzunam etxean entzuna.
- beesten ama ona, norberana askoz hobe.
- amari egindako zorrak ez dira inoiz ordaintzen.
- zaharrari azkar joateko eta hurrari geldi egoteko esatea bardin da.
- inor ez da ikasia jaiotzen.
- eskola umeak sasiz-sasi asko jan eta gitxi ikasi.
- ni txapelgintzan hasiko banintz, umeak bururik barik jaioko leitikez.
- eroriz ikasten da oinez.
- guk kanpaia entzun dogubaina ez doguz izarrak ikusi.

- - diote dirurik gabe ez dagoela ondasunik.
- buruz ikasteak ez du askotarako balio.
- aho ertzitik ez da eulirik sartzen
- zoaz pikutara
- askoren mina, leloaren atsegina.
- zalditik astora eta astotik lurrera dabilta horiek.
- gogozko tokian aldaparik ez.
- urrutiko intxaurrak hamakau, bertara joan eta lau.
- Ameriketan ere txakurrak oinutsik.
- Bilboko ura, esaten diote txanpanari Bilbaon.
- Bitan atera zuen bere zenetik
- Haitzetan jaiok haitz etara gura.
- Alkate arengandik ez dut erantzunik jaso, idazkariaren-
gandik bai.
- Benetako lagun engandik beti ikasten da zerbait.
- Lagun batzu engandik hobe da alderatzea.
- Aita Barandiaran engandik badaukagu zer ikasi.
- Agintari batzue engan ez dago sinisterik.
- Batzutan, kanpoko engan etxeko engan baino gehiago
pentsatzen dugu.
- Urrutiko intxaurrak hamalau gerturatu eta lau
- Neke gaberik ez da bizitzerik
- Ahozabal luze logura edo gose.
- zein hagineta dan mina han da mihina.
- entzun eta isil baizko borobil.
- hori ere baten bati ondo etorriko jako.
- horrekin bere etorriko jakue bueltea
- hauxe bakarrik falta jakun, amona haurdun
- jakun, jakun, jakun, ea buruan sartzen jakun.
- guk egin genduazanak egin eta hau da eskerra.
- egin baeban, egin eban ba ta.. zer egingo jako ba.
- esanak esan, berena jarraitzen eban.

- Itxitako begi guztiak ez dabe lo egiten, ezta edegitako guztiak ikusi be.

- Oba da menpeko izatea, agintaria baiño.

- Eziña da, munduko bitxi guztiak biltzea, eta orregaitik, gitxi batzuk diralako, ederragoak dira.

- Berandu eldutea, ez da astirik-eza, begirune-eza baiño.

- Gauza guztiak era baten ikastea, biderik onena da ez-jakiña izateko.

- Erri bat endekatzen da, seriotasun utsas jostailluak aztu egiten dauzanean.

- Ama bat amama biurtzen da, semeek egiñeko barrabaskeriak aztu egiten dauzanean, biloben ekintza zoragarriak ikustean.

- Iñoren aurrean gur egiteko makurtzen garanean, beste iñori atzekaldea emoten dautsagu.

- Eun urte biziko ba'ziña lez bear egin; biar ilko ba'zintxake lez otoitz egin. (Franklin).

- Zoriona ez da norberak gura dauna egitea,
norberak egiten dauana maite izatea baiño.
- Abereak, zugaitzak, udaberria eta izadia
maite izatea erraza da. Ez da ain erraza,
baiña, gizakiak ulertzea ta alkar jasatea.
- Beste errien anttzera
guk be ba dogu izkera.
Euskalerrian EUSKERA
lāen, orain eta aurrera.
- Guk ba'dogu gure Erria,
izena Euskalerria,
Euskera maitagarria
da gore ezaugarria.
- Lana da gure adiskiderik onena.
Legea, oituratik dator.
Lorarik ederrena, Maiatzeko antxobia.
- Batzuen goiburua, benetako gizona
izatea da. Beesten, ordea, gizon baten
itxura izatea da.
- Txarria azi etxean eta il auzoan.
Zezena bere, il aurretik belauniko.
- Zergaitik ez da emakumea Meza laguntzera joate?
Itaundu baiño lenago erantzuten dauelako.
- Mundu guztiak zapuzten nauanean,
benetako adiskidea da higana urreraturik,
nire bizitzaren abea joten dauana.

- Oso santua izan arren, ez da iñor beste goragoko mailla bat jaritsi ez dagikeanik.
- Burutapenak untxiak (konejuak) lez dira. Bi euki ondoren ondo erabilten ba'dozuz, laster amabiko bat biurtzen dira.
- Jendearen eritxiaren jopuak gara guztiak.
- Zenbat buru hainbat aburu
- Alaba bi eta hiru seme, adinon ume.
- Aukeraren maukera, azkenean okerra.
- Otsoak otsoari gatzik ez, eta lapurrari lapurrak laztan.
- Mari gurea goruetan, bear eztan orduetan.
- Azeak berea kirtena, ta aritzak bere arikoa ezpala
- Lekuan lekuan maillua, gurian andiagoa.
- Topiñak galdareari, ipur baltz.
- Zu beti bero, otz eztana bero.
- Soldadua, amaren seme galdua.
- Guztia nai izatea, guztia galdutea.
- ‡ Eguzkia nora, zapiak ara.
- Egia, askoren erregarria.
- Goiz jagi, goiz gose; belu jagia, loz ase.
- Zor zarra, lor txarra.
- Jan edan gozoa, kontu emuille gaiztoa.
- Errementarian etxean, zotza burduntzi.
- Ibiltari gabian, logura goizian.

- Esku arteko gauzetan zabiltz beti arduratsu.
- Ona da arin ibiltea, baiña larregi estutu barik.
- Jaunagan ustetsu zaite, baiña zeu be ez alper bizi.
- Zuzen jokatuaz ez bildur izan; baiña, ostera, oker ba'za-biltza.
- Arpegi alaiz eroan neke, lor ta atsekabeak.
- Emakume arin-zoroena dozu, azaluts izatea.
- Urrindu, al dala, lagun gaiztoekandik.
- Arduraz zaindu zeure izen ona.
- Iñor iraindurik, zeure burua iraintzen (injuriar) dozu.
- On-bide ondoan sortu oi da zorion-lilia.
- Guzurra beti ta non-nai iguingarri.
- Adiskide txarragaz baiño, bakarrik obeto.
- Zarean baiño geiagotzat, ez euki zeure burua.
- Zabiltz beti eratsu ta adeiz (deferencias)
- Zorrak ordaindu, al bait ariñen, ta ar-emonetan ez izan nagi (perezoso).
- Neskagarri da, beti be, adiskideak diñoena guzurtzat artzea.
- Gurasoen onu-esanak jaso ta ontzat artu egizuz.
- Izakerari, baiño len diruari amor egin.
- Aldemu, alegiñez, geiegi kerietatik.
- Opor-aldietan be jardun zerbaiten, batez be zeure adimena obeagotzen.
- Bizi noznai, alik eta neurritsuen.
- Guztiz orniduak ezatea errez ez yakun ezkerro, al bait eta akatsik gitxienez bizi gaitez, beintzat.

-NIRE HERRIKO ESAKERA BATZUK

Berbetan ez dakidxen piztidyekaz kontuz gero! Esten dogu gure herrian. Ikusi daiguzan gure herrian mota guztietako pizti eta animaliekaz daukaguzan esakerak.

Txakurre ernegaten edo amurruan ipinteko edo katu bateri edo beste txakur bateri aurre egiteko **Utse!** edo **Ez itzi!** Esaten deusagu.

Txakurrelako estule.- Zarata handikoa.

Txakurrelako dolorie.- Min edo dolore handidxe.

Txakurrelako atunek edo txakurren besteko atunek.- Atun handidxek.

Txakur egualdidxe.- Eguraldi txarra

Itsoso txakurre.-Itsoso txarra.

Txakurren bustena lez, beti atzetik.-Atzetik dabilenari.

Txakurrek elizarako ganie.- Gogo eza. Esate baterako:Horra ezkontzarako, txakurrek elizara baño gogo gitziâu dakot.

Lau txakurren.- Belauniko jarri eta txakurren moduan ibiltzeari.

Ama txakurren frankue.- Pauso andidxe

Txakurre. Zelakue zara baie! Zenzuan.

Txo, erbi txakurre zarala zu!.- Maltzurra

Jan txakurre.- Alperra edo bestien kontura dabilena.

Kaza txakurre.- Besteek egindakoa gozatzeko prest dagoana.

Ama perrie.-Kaka zaharra! Zentzuan . Adibidez:**Ama perrien imie!**
Nagusiek imiei, zeozer txarra egiten dabenean.

Leku guztidxetan txakurrek oinotsik!.-Leku guztietan gertatzen dirala
gauza bardinak.

Hau? Galdetzen dauenari, au, **txakurrek eitzen dau** erantzuten jako.

Nondik? Galdetzen dauenari, **txakurrek buztanpetik** erantzuten jako.

Beti? Galdetzen dauenari, **Beti, txakurrek buztanpetik** erantzuten jako.

Laztana esaten dauenari, **txakurrek buztana?** Erantzuten jako.

Non dau...? Galdetzen dauenari, **emen, txakurre izan bazan hainke**
erantzuten jako

Dirugaitzik esaten dauenari, **Dirugatzik, txakurrek pe dxatzan ein zauen**
erantzuten jako

Diru kontuetan.- Txakur txikitdxe, txakur handidxe. Esate baterako:
Txakur txiki barik, txakur txikirik pez.

Ur-txakurre.-Itsasoan trebea danari.

Herri txakurre.-Itsasoari dardart egiten deutsona.

Legoie edota legoien azala.- Pertsona ausata. Adibidez: **Legoi lez.-**
Ederto."Legoi lez pasa dot"

Da legoie?.- Gizonen artean kasu egiteko, **Zer edo?** Zentzuan.

Orokorrean, insektu guztiei **mamarrue** deitzen badeutzagu, **guzurren** mamarrue, berezike guzur asko esaten dauen pertsoneari esaten deutzagu.

Lau katu.- Jente gitxi.

Eguzkidxe miau.- Eguzkidxe tapa ten danielen.

Katuek dakotaz aldarrike estomanguen.- Gosez gabiltzanean.

Katuek auen ibiliko moduen.- Bigunduta edo etxure barik.

Txapa ganiien katue.- Jateko ordua ta etxean jatekorik ez dagoenean.

Katuen gloriidxen.- Epeletan egoteari.

Badagoz hainbat esakera eta ezizen, txorien eta arrainekaz zer ikusi daukienak, baina beste geuze batzukaz. ibilkogara.

Arrelepo.- Nonor lepoan eroateari.

Arrekosillo.- Nonor kokotean eroateari.

Asto zatidxe edo astokillo.- Pertsona traketza: **Zu zara asto mando!**,
Kendu hortik astu hori!

Asto-astoka, mando-mandoka.- Arrelepo olgetako lasterketa.

Astuen ostikadie baño hobie da! Zeozer dok hori be. Zentzunean

Asto jaidxo ta mando hazi.-Beti astokillue.

Astue jjuen ta mandue etorri.- Etorri ta jjuen, kasurik egin barik.

Basokaballuen pausue.- Ibilkera torpiri.

Mandue.- Torpie edo handidxe-Nongo mandue zara baie!, Etxe Gizon mandue, Herri mandue, eta bar...

Manduen gañekue.- Handi-handidxe.

Manduen ostikadie lez.- Ezustekoan jatorkun gertakizun ezkorra.

Arrimandoka edo arremandoka.-Lan asko eta gogorra egiteari.

Txalo pintxalo, txalito txalo, astotxua mispiltxuan ganian dago.- Umeen abestia.

Maria Erramona, Maria Erramona, kortako asturi jaten emoidsona.- Abesti herrikoia.

Asto kantsaue.- Alperra edo beti kantsata dabillena.

Konzentzidxe! Esaten dauenari, konzentzidxe, astuek jan zauen erantzuten jako.

Ahaztu jast! Esaten dauenari, Astue kortan ta mandue etxien erantzuten jako.

Dsezena.-Zezena.- Gizon indartsua.-

Beidxe lez loditsute.- benetan lodi.

Antxinan, Aste Santuen konfesatzerakoan, txartel bat emoten eben, gero txartel horrek edozein errekomentazinarako bailoteen ebalarik. Txartel hori atarateari, **txala kanbidxe** deitzen jakon.

Ardi galdu lez.- Erdi galduta dabillenari esaten jako.

Ardi kakak.- Loi tantak.

Lekuen lekuen, ardi banak kanpuen.- Leku guztietan antzien.

Ardi txikidxe, beti bildots.- Pertsona txikidxe, beti gazte.

Kurubijjue lez ibilli.- Hara ta ona ibilli, nora ezien.

Zelako mariposie da baie! – Miskillie, tentela edo antzekoa.

Kurubijjuek jango zaitsuz.- Galbanigaz dagonari esaten jako.

Ollue.- Ikaratsue.

Olluen popak.- Emozinoz beteriko egoera batek, ikareak edo hotzak eragiten deuskun hotzikara eta gorputzan sortzen jakun olluen itxurea.

Ollarra.- Pertsona arrue.

Eulidxek pe ikaratu.- Pertsona ikaratsua.

Euli mandue lez.- Buelta bueltaka ezer ezean.

Bekerekak.- Itsasoan olatu txikiek sortzen daben zuritasunei.

Lukidzek baño geidxau daki.- Lar jakina.

Lukidzek ulie jeusitze be, menduek beti aldien.- Pertsonen izakerea ez da errez aldatzen.

Zorristo.- Koipesto.

Sugoi lakue, saltamatxinue edo sagutxue.- Ume ziriñe.

Pistidxe.- Txarra

Ur-arratoie.- Uretan trebea.

Egon ba! Esaten badogu, besteak Egonda erbidxe atrapatzen da erantzungo deuzku.

Lagun askon txarridxe, gosiek hil zauen.- Batek emongo deutsola jaten, bestiek emongo deutsola, azkenean iñok pez.

Basotxarridxe.- Lodidxe. Esaterako: **Basotxarridxe lez dau loditsute.**

Txarridxen bizidxe.- Bizi ona.

Txarri markaue.- Istripu edo borroka baten ondorioz, arpidxe txarrapatata edo markata daukana.

Eta onek eta geiago dira berbetan ez dakien piztien esaerak, gure herriko esakeratan.